

## **DONOSTIAKO NAZIOARTEKO JAZZALDIAREN KOMUNIKAZIO INTEGRALEKO ESTRATEGIA DISEINATU ETA PLANIFIKATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xedea da Donostiako Nazioarteko Jazzaldiaren komunikazio integraleko estrategia diseinatu eta planifikatzeko zerbitzua, Orri honetan eta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orrian aurreikusitakoaren arabera.

Zehazki, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, Saren (aurrerantzean VICTORIA EUGENIA) zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean eskaini beharreko zerbitzua honako jardura hauetan zehazten da:

- Jazzaldiaren Komunikazio integraleko Estrategia bat diseinatu eta planifikatzea, Jazzaldiak hedabideetan duen oihartzunaren eta hedabide eta komunikazioko plan horren eraginkortasunaren jarraipena barne hartuta.
- Jazzaldiaren jardura guztien berri emateko argitaratuko diren prentsa-buletin guztiak idatzi eta hedatzea.
- Prentsa, irratia, telebista eta web orrietako ordezkariekin harremana, hauen eta Jazzaldiaren arteko edozein harreman-maila posibleetan.
- Dokumentuak idaztea, jendeari Jazzaldiaren ekitaldi eta kontzertuei buruz informatzeko paperezko edozein hedabideetan edo Web-ean argitaratzeko.
- Jazzaldiaren ekitaldiak hedabideetan agertzeari buruzko txostena bildu, sailkatu, baloratu eta lantzea.
- Donostiako Nazioarteko Jazzaldiaren komunikazio integralaren diseinu eta planifikazioarekin erlazionatutako beste edozein jardura.

### **2. LANEKO METODOLOGIA**

Kontratuaren xede diren jarduerak erakunde kontratugilearen lokaletan eta jardura horiek betetzeko beharrezkoa den beste edozein espaziotan egingo dira.

Edozein modutan, kontratistak bere proposamen teknikoan adierazitakoaren arabera eskaini beharko ditu bere zerbitzuak, baina, VICTORIA EUGENIAK, dagozkion zuzendaritza-, ikuskapen- eta kontrol-ahalmenak gauzatu, eginkizun desberdinen laneko metodologia aldatzeko eskubidea du, kasuan-kasuan sortzen diren beharren arabera.

### **3. JARDUERA PLANAREN XEHETASUNA BARNE HARTZEN DUEN KRONOGRAMA**

Kontratistak kronograma bat aurkeztu behar du eta bertan zehaztu dagozkion urtean garatuko dituen jarduerak. Enpresa lizitatzailleek proposamen teknikoarekin batera aurkeztuko duten kontratuaren lehen bi urteei dagozkien jardueren plana barne

hartzen duen kronograma, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orriko **13. Klausulan** ezarritakoaren arabera. Modu osagarrian, kontratua indarrean egongo den datozen bi urteei (luzapenik egonez gero) dagokien jardueren plana barne hartzen duen kronograma aurkeztuko du enpresa esleipendunak. Dagokion urtea hasi baino gutxienez 15 egun lehenago aurkeztuko da aipatutako kronograma eta VICTORIA EUGENIAK onartu beharko ditu.

Enpresa kontratistak bere proposamen teknikoan adierazitakoaren arabera eskaini beharko ditu bere zerbitzuak, baina, VICTORIA EUGENIAK, dagozkion zuzendaritza-, ikuskapen- eta kontrol-ahalmenak gauzatzuz, kontratistak proposatutako jardueren plana barne hartzen duen kronograma aldatzeko eskubidea du, kasuan-kasuan sortzen diren beharren arabera.

Donostian, 2014ko maiatzaren 6an

Amaia Almirall  
Kudeatzailea

